



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularatasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a

Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

19. ERABAKIA: PIRINIO ATLANTIKOETAKO ARKITEKTURA, HIRIGINTZA ETA INGURUMEN KONTSEILUKO KIDE IZATEA (CAUE 64)

Jaun auzapezak Herriko kontseiluari proposatzen dio Pirinio Atlantikoetako arkitektura, hirigintza eta ingurumen kontseiluko (CAUE) kidetza berritzea 2022. urterako. CAUE kontseiluak lurralde politikak sustatzen eta arkitektura, hirigintza, ingurumena eta paisaien arloko aholkularitza, formakuntza, informazio eta sentsibilizazio eginkizunak betetzen dituela zehazten du.

Jaun auzapezak oroitarazten du herriak maiz dei egin diola zerbitzu honi.

Jaun auzapezaren azalpenak entzun ondotik, eta eztabaidatu ondotik, herriko kontseiluak,

- **ONARTZEN DU** Pirinio Atlantikoetako CAUE kontseiluko kide izatea 2022. urterako, 12 hilabeteko eperako.

- **ONARTZEN DU** 210 €ko urtesaria ordaintzea 2022. urterako.

- **SEGURTATZEN DU** gastu horien ordaintzeko behar diren kredituak 2022ko aurrekontuan sartuak direla.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

